

Bilbon, 2004.eko maiatzaren 28an

Batzar-agiria

Jean Haritschelhar, euskaltzainburua,
Xabier Kintana, idazkaria,
Beñat Oihartzabal, Iker sailburua,
Andres Urrutia, Jagon sailburua,
Jose Antonio Arana-Martija,
Patxi Goenaga,
Andres Iñigo,
Emile Larre,
Jose Luis Lizundia,
Patxi Ondarra,
Txomin Peillen,
Pello Salaburu,
Ibon Sarasola
eta Piarres Xarriton euskaltzainak,

Pello Telleria, idazkariordea, Juan Jose Zearreta, kudeatzailea, eta Mikel Gorrotxategi zegozkien gaietan.

Ezin etorriak eta ahalak: Henrike Knörr, ahala A. Urrutiari; Miren Azkarate, ahala P. Salabururi; Juan Mari Lekuona, ahala J. Haritschelharri; Patxi Altuna, ahala P. Salabururi; Patxi Zabaleta, ahala A. Iñigori.

Batzarra goizeko 10,15ean hasi da Euskaltzaindiaren egoitzako batzar aretoan, ezkerreko zutabearen ageri diren euskaltzainak eta bertan direla.

1. Akta onartzea.

Martxoko batzarraren akta, Tx. Peillenen oharraz, onartu egin da.

2. Hizkuntza gaiak.

2.1.1. Onomastika: Gipuzkoako herri izendegia (1. zerrenda): Donostia-Beterri eta Oiartzualdea, aurreko bileran banatua, aurka inolako oharrik jaso gabe, ontzat eman da.

2.1.2. Batzordeak Gipuzkoako herri izendegia (2. zerrenda) Tolosaldea aurkeztu du.

2.2.1. Hiztegi Batua: erabakitako *aurpegiera-azalergia* zerrenda onartua banatu da.

2.2.2. Hiztegi Batua: erabakitako *azalkizun-azuzena* zerrenda onartua banatu da.

2.2.3. Hiztegi Batua: *b – berriz* zerrendari egin zaizkion oharrak aztertu eta erabaki dira, *ba-tik balauste*-raino.

3. Eskuartekoak.

J. Haritschelharrek ondoko gaiak aurkeztu ditu:

3.1. EITBren eskaria: Corpus batzorde osatuaren bidez prestatuko da, baina euskaltzainen batek oharren bat egin nahi badu, ekainaren 21era arteko epea du ohar idatziak egoitzara bidaltzeko.

3.2. Euskalkien lantaldea: Kide batek bere lekua utzi du (Iraide Iturrik) eta horren ordez Corpus batzordeak beste bat proposatzen du (Nagore Etxebarria). Osoko bilkuran ontzat eman da.

3.3. Hiztegi Batua berrikustea: Apirileko osoko bilkuran Hiztegi Batua, argitaratu aurretik hobeto aztertu beharra aipatu zen, kezka hori agertuz. Arazo hori konponetzea Zuzendaritzaren esku gelditu zen. Hori dela eta, Euskaltzaindiak UZEIrekin sinatua duen hitzarmenean oinarrituta, egiaztatze jakin batzuk egin daitezten bermatuko du Euskaltzaindiak.

3.4. 2003ko Oroitidazkia. Irteeran iazko oroitidazkia euskaltzainen artean banatuko dela iragarri du.

3.5. Larresoron egiteko bilkurak. Zuzendaritzak ekainaren 24ean egingo du beara, goizeko 10etan. Arratsaldean, 16,30etan euskaltzainak Haltsura joango dira Harriet-en oroitaria jartzera. Ondoren, hari buruzko mintzaldiak egin eta Manex Goihene-txeren hilberria irakurriko da. Biharamun goizean Euskaltzaindiaren ohiko bilkura izanen da.

3.6. Andolin Eguzkitzaren hutsa betetzeko hautagaiak aurkeztea. Oraingo bilkuran Andolin Eguzkitzaren hutsunea betetzeko beste kandidatura bat aurkeztu da. Joan den hilean Itziar Laka andrea aurkeztu zuten M. Azkaratek, B. Oiharzabalek, P. Salaburuk eta P. Xarritonek. Bigarrena Adolfo Arejita jauna da, X. Kintanak, J.L. Lizundiak eta A. Urrutiak aurkeztua. Kandidatuak aurkezteko epea amaitu da.

3.7. Europar Kontseiluko hizkuntza minorizatuen aldeko taldea. J.L. Lizundiak azaldu du maiatzaren 26an Europar Kontseiluko hizkuntza minorizatuen aldeko taldea izan zela, bertoko hitzaldi-aretoan irakasle, kazetari eta abokatu euskaldunekin ere izanez. Akademiari buruzko informazioa J.L. Lizundiak berak eman zien.

4. Liburu berriak. Bukaeran Rikardo Badiola argitalpen eragileak eta Joan Artza banatze-arduradunak ondoko liburuak banatu zituzten euskaltzainen artean: *Euskera* 2003,2, 2003ko *Oroitidazkia*, *Sakanako Hiztegi Dialektologikoa*, Jose Luis Erdoziak idatzia eta Nafarroako Gobernuarekin koedizioan argitaratua; *Espainiako konstituzioa*, euskarazko testuarekin; *Lore-koroa neure herriari*, A. Eguzkitzaren poesi bilduma, Santurtziko Udalak dohatua; San Ignazioaren *Gogo-jardunak*, Patxi Altunak itzulia Klasikoak bildumaren barruan, Antso III.aren milaurren ekitaldiei buruzko informazioa.

Bilkura 14,55ean amaitu da.

Euskaltzainburua
Jean Haritschelhar

Idazkaria
Xabier Kintana